

UGAZABA ETA ERRETERUA

Mendatako Leon Undabarrenak kontatuta

Gizon bata modu hobakoa zan, ugazaba modu hobakoa... baina ondo manejanen jakin ez bere etorriak, eta erreterua gitxiago euki arren, ba begitu gauzeari eta ondo manejeu eta edonorako modukoa, ugazaba baino preparatuagoa. Egun baten pentsatu ei eban ugazabak erreteruarengana joan behar dabela kontu batzuk kontatuaz eta horrexek pregunetan, gauzak jakiten.

Joan ei zan eta:

– Zer bahator?

– Bai hemen natorrek!

Iluntzea zan eta argia isiotu eban erreteruak:

– Zer ekarri dok ba?

– Kontu batzuk kontetan.

– A! kontuek kontetako baino ez badok ilunetan be bardin kontatuko doguzak!

Eta taka! argia amatatu eban harek, eta orduan igerri ei eutsan ugazabak:

– Han...! Jakin badakit konturik gehiago kontatu barik be zelan begitu geuzeari!

Harek argia amatau eban kontuak esateko bakarrik. Argia amatatu ebanean beste gauza bateri be bardina egingo eutsala pentsatu eban ugazabak, eta halan igerri eutsan.

Mendata gure geurea denentzat

Idoia Mallea Lamikiz

Mendatako Udala

Bilbo 2002